

Ingurune ekonomikoa

BPGda osagaien arabera. Aldakuntza tasa⁽¹⁾

	URTEKOA		HIRUHILEKOKOA				
	2006	2007	III-2007	IV-2007	I-2008	II-2008	III-2008
Nekazaritza	-4,4	9,8	-0,2	14,9	5,3	-0,2	2,2
Industria	4,2	4,0	3,9	2,2	1,8	1,4	1,0
Eraikuntza	4,2	4,6	4,9	3,3	2,4	1,1	-1,0
Zerbitzuak	4,5	4,2	4,1	4,6	3,6	3,4	2,8
Kontsumoa	3,8	3,8	3,8	3,7	2,9	2,2	1,7
KEG⁽²⁾	5,9	5,5	5,4	4,0	3,1	3,2	2,0
Eskaria	4,4	4,4	4,4	3,9	3,0	2,5	1,8
Esportazioa	6,2	7,6	8,6	7,1	6,9	9,0	5,9
Inportazioa	6,1	7,6	8,9	7,2	6,6	8,2	5,7
BPGda	4,4	4,1	4,0	3,8	3,1	2,6	1,9

Fuente: Eustat. (1) Bolumen kateatua. (2) Kapital eraketa gordina.

Euskal ekonomia 2008ko hirugarren hiruhilekoan bere hazkundea motelduz hoan da berriro ere, urteen arteko aurrerapena %1,9koa izan dela. Edozertara ere, azpimarratu behar da hiruhilekoen arteko hazkundea positiboa izan dela (%0,3) Europako ekonomia nagusi batzuetan ez bezala, Espainiakoa ere barne delarik, han hiruhilekoen arteko tasa negatiboa gertatu baitira, (-%0,2, bai Estatuan eta bai UE-27an ere).

Eskariaren ikuspegitik, gertaerarik nabarmenenak bi dira: barne eskariaren murriztapena (hirugarren hiruhilekoko aurrerapena %1,8koa izan da, bigarrenean %2,5koa izan zela) eta kanpo sektoreak ekonomiaren hazkundera egin dion ekarpen positiboa (ekarpena hamarren batekoa


izan da, aurreko bi hiruhilekoetan bezalaxe). Barne eskaria gutxiago hazi bada, hori bere osagai bien, hau da, kontsumoaren (kontsumo pribatuaz ari gara batez ere) eta inbertsioaren desazelerazioaren ondorioa izan da: kontsumoaren hazkundea %0,9 izan da, aurreko hiruhilekoan %1,4 izan zela; eta inbertsioak %2az egin du aurrera, aurreko hiruhilekoan aurrerapena %3,2 izan delarik. Honen guztiaren ingurunetzat, bai esportazioen eta bai inportazioen headadura erritmoa aurreko hiruhilekoan baino motelagoa izan da.

Eskaintzaren ikuspuntuari helduz gero, bai hirugarren sektoreak eta bai lehenak euskal ekonomiaren multzo osoak baino dinamismo handiagoa lortu dute (%2,8 eta %2,2, hurrenez hurren); industrian, berriz, hazkundea txikiagoa izan da (%1) eta eraikuntzak azken hamarkadan lehen aldiz atzera egin du (-%1). Kontuan hartu behar da, nekazaritza eta arrantzen sektorea alde batera utzirik, gainerako jardura adar nagusien hazkundea bigarren hiruhilekoan lortutakoa baino txikiagoa izan dela. Desazeleraziorik handiena eraikuntzan gertatu da, sektore hau bigarren hiruhilekoko %1,1eko aurrerapenetik, hirugarreneko -%1eko murriztapenera igaro baita. Esan liteke hemen obra zibilak ezin izan duela eraikinen sektorearen bilakaera negatiboa konpentsatu. Beste alde batetik, zerbitzuen hazkundea sei hamarrenez txikiagoa izan da, oraindik ere adarrik dinamikoena osatzen badute ere, eta industriaren hazkunderaren moteltzea ere arinagoa izan da.

Enpleguaren egoera


Biztanleria aktiboa, landuna eta soldatkoa (EAE milatan)

Aurreko hiruhilekoetan ikusi ahal izan zenaren antzera, biztanleria aktiboa III. hiruhilekoan hazi egin da, gutxi bada ere (%0,6), aurreko urtearen aldean. Biztanleria landunak, beste alde batetik, bere hartan jarraitzen du, haren hazkundea %0,1 bakarrik izan delarik (Estatuan %0,8ko atzerapena izan da). Eta biztanleria langabearen joera goranzkoa dela baieztatzen da %15,3ko hazkundea izan duelarik (35.500 pertsona). Hala eta guztiz ere, 2008ko III. hiruhilekoko langabezia tasa %3,5koa da oraindik ere (Estatuan oro har %11,3koa da). Uztailetik irailera erregistratutako langabeziari dagokionez, urteen arteko %10,2ko igoera izan du. Azkenik, egoera sektoreen arabera aztertuz gero, hirugarren hiruhilekoan okupazioak sektore guztietan gora egin duela ikus daiteke (%2,6 lehen sektorean, %2,4 industrian eta %0,3 zerbitzuetan), eraikuntzan izan ezik (-%8,1).



Iturria: Eustat


Soldatoko biztanleria kontratu motaren arabera (ehunekotan)



Soldatoko biztanleriak ez du ia urteen arteko igoerarik izan (%0,9), urteko hirugarren hiruhilekoan 809.400 pertsonak osatzen dutela. Haietatik %77,2ak mugagabeko kontratua du, %20,5ak aldi baterakoa eta %2,3ak kontraturik gabeko eta beste egoera batzuetan dauden pertsonak dira. Gauzak horrela, aldi baterakotasunak bere horretan dirau, gutxi gora behera. Beste alde batetik, EINen erregistratutako kontratazioari begiratzuz gero, ikusiz gindoazen kontratazio honen murriztapen testuinguru batean (uztailetik irailera -%4,2), bai mugagabeko kontratazioak eta bai aldi baterakoak behera egin dute, -%5,4 eta -%4,1, behera egin ere, hurrenez hurren.

Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboaren segimendua
(EAEko negoiazio kolektiboak 607.071 pertsona ukitzen ditu)




- BERRITU GABEKO HITZARMENAK:** Inda raldia amaitu eta azterlanaren gaia dugun hiler arte berritu ez diren hitzarmenek ukitutako langileak. 441 hitzarmen dira.
- 2008AN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK:** 2008an erregistratu diren eta urte honetan bertan indarrean dauden hitzarmenek ukitutako langileak (hilez hil metatutako baloreak). 219 hitzarmen dira.
- AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK:** 2007ko Abenduaren 31 arte erregistratutako hainbat urterako indarraldia duten eta 2008rako indarrean dauden hitzarmenek ukitutako langileak. 370 hitzarmen dira.

Iturria: Geuk egina, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren informazioaz

hitzarmenetan iraupen hori 402 egunekoa izan da batez beste. Enpresako hitzarmenetan ere, eremu horretako langileen %41a ukitzen duten hitzarmenen %44a berriatu gabe dago. Edukiari dagokionez, honako gai hauek nabarmendu behar dira: legeak sustatutako berdintasun planak sartzen hasi dira (Adib. Endesa), lan eta familia bizitza elkargarri egitea (adib. Iberdrola) eta enpresaren gizarte erantzukizuna (adib. besteren prebentzio zerbitzuak).

Itundutako soldata igoeren eta inflazioaren bilakaera




soldata igoera (%4,67) enpresakoetakoa (%3,61) baino handiagoa izan dela esan behar da. Lurraldean arabera, igoerarik handienak Bizkaian eta Gipuzkoan gertatu dira (kasu bietan %5a baino handiagoak), zenbait sektoretan lortu diren akordioei esker: lurralde bietako eraikuntzan, Bizkaiko merkataritza orokorrean eta Gipuzkoako siderometalurgian, alegia. Gure arreta EAEn erregistratzen diren hitzarmenetan bakarrik jartzen badugu, itundutako soldata igoera %5,02 izan da, EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmenetakoa (%2,82) baino handiagoa, argi eta garbi.

2008ko lehen bederatzita hiletan 219 hitzarmen erregistratu dira, euren eraginpean 88.432 pertsona hartzen dituztela (negoiazio kolektiboaren menpekoen %14,5a). Urtearen hasieran, %48,5a ukitzen zuten hitzarmenak berriaz berri zuden, beraz, %37aren hitzarmenak gertatu dira berriaz berri. Honi dagokionez, kontuan hartu behar da portzentaje hau txikiagoa izango litzatekeela, indarrean dauden estatutuaz kanpoko zenbait hitzarmen, adibidez Bizkaiko eta Arabako metalarena, %12a ukitzen duena, aintzat hartuko balira. Hauxe gainera, Araban sektoreko 5 hitzarmen daude berriaz berri, haien artean elikaduraren merkataritzaarena nabarmentzen dela. Bizkaian sektoreko 20 hitzarmen falta dira, haien

arteaz zuzen industria, 2003tik berriaz berri, eta aspaldi luzeagotik berriaz berri gabe dauden beste batzuk (abokatuen bulegoak 2000tik, ile apaindegiak 2001etik, eraikuntzarako materialak 2002tik eta beira lauaren manufaktura 2002tik). Gipuzkoan sektoreko 24 hitzarmen daude berriaz berri, haietako 12 egoera horretan 2003 edo lehenagotik daudelarik. Negoiazio kolektiboaren egoera oro har azken urteetan baino hobea da, hitzarmena berriaz berri daukaten pertsonen portzentajeak gora egin baitu. Hala ere, zailtasun handiak daude akordioak lortzeko eta horregatik negoiazio prozesuen iraupena handia da: 2008an erregistratutako sektoreko

Berriaz berri hitzarmenetan adostu den soldata igoera (langile kopuruaren arabera haztatutako batez bestekoa) %4,48 izan da, Estatuan oro har gertatu dena (%3,51) baino handiagoa. Kontuan hartu behar da kasu bietan soldata berriaz berri klausulen ondoreak sartu gabe daudela. Igoera 2007koa (%4,23) baino handiagoa izan dela nabarmen daiteke. Hau funtsean urtean arteko inflazio tasak gora egin duelako gertatu da, gehienetan tasa hori hartzen baita erreferentziatzat. Hala ere, hitzarmen hauen menpeko pertsonen erosteko ahalmena hobetzeko marjina nahikoa murriztu dela esan behar da, kalkulatzeko azken hamabi hiletako batez besteko inflazioa erabiltzen badugu, behintzat. Eremu funtzionalak kontuan hartzen baditugu, sektoreko hitzarmenetan itundutako

Hitzaumen kolektiboan itundutako lanaldi murrizketak



(*) 2008.09.30a arte erregistratutako hitzaumenetan

Lanaldiari dagokionez, azken urteotako joera berretsi da: gero eta txikiagoa da lanaldiaren murrizketa ezartzen duten hitzaumenen kopurua (berritutako hitzaumenen %26). Azken aspaldian ohi denez, murrizketa adosten duten hitzaumenen portzentajerik handiena EAEn erregistratutakoen artean gertatzen da (%33,4), EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzaumenen artean portzentaje hori %13,3raino jaisten delarik. Era berean, adostutako murrizketaren zenbatekoa ere (ordu bat urteko, 2007ko lanaldiaren aldean), 2007an indarrean zeuden hitzaumenetakoa baino txikiagoa izaten ari da, baita orain dela urte batzuk adostutako murrizketak baino nabarmenki txikiagoa ere, honekin batera erakusten den grafikoan ikus daitekeenez.

Kontuan hartu behar da hitzaumen asko daudela berriro gabe eta eremu hauetan formalki lanaldia aldatzekarik gabe dagoela, zenbait kasutan aspaldi luzean, gainera. 2008rako berriro diren hitzaumenetakoa batez besteko urteko lanaldia 1.701 ordukoa izan da, 1.708 ordukoa sektoreko hitzaumenetan eta 1.672 ordukoa enpresakoetan. Era berean, EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzaumenetan adostu den batez besteko lanaldia (1.712 h), EAEn erregistratutako hitzaumenetakoa (1.698 h) baino handiagoa da.

Lan gatazkak

EAEn egindako lan grebak (behin behineko datuak)

		2003	2004	2005	2006	2007	2008(*)
ARA-BA	Grebak	38	41	36	57	42	38
	Partaideak	6.883	11.680	6.274	6.359	4.916	3.530
	Egunak	43.795	47.338	32.990	12.036	7.940	5.945
BIZ-KAIA	Grebak	118	116	85	109	91	82
	Partaideak	24.043	47.620	39.817	44.543	27.873	18.552
	Egunak	128.75	197.233	56.673	122.216	68.507	32.901
GIPUZ-KOA	Grebak	65	86	55	58	71	52
	Partaideak	43.868	41.758	7.025	11.675	13.703	8.231
	Egunak	167.31	361.584	16.525	34.181	36.050	16.213
EAE	Grebak	221	243	176	224	204	172
	Partaideak	74.794	101.058	53.116	62.577	46.492	30.313
	Egunak	339.86	606.155	106.188	168.433	112.497	55.059

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Eusko Jaurlaritza
Egunak: Lan egin gabeko egunak. (*) Urtarriletik irailerako aldia.

2008ko lehen bederatzi hiletan EAEn 172 greba erregistratu dira: parte hartzaileak 30.313 izan dira eta lan egin gabeko egunak 55.059. Aurreko ekitaldiaren aldean, greba kopuruak gora egin du (%17) eta parte hartzaile kopuruak, berriz, behera (-%10,2), hala nola lan egin gabeko egunenak ere (-%42).

Greba egiteko arrazoari dagokionez, %51 negoziazio kolektiboko desadostasunetatik datoz, eraginik handiena greba hauek izan dutelarik, ekitaldiko hiru hiruhileko hauetan grebengatik lan egin gabeko egunen %73a eragin dute eta. Era berean nabarmendu beharrekoa da, greben %16a eta lan egin gabeko egunen %14a hitzaumenaren negoziazio orokorrarekin zuzenean lotuta ez zeuden soldata hobekuntzengatik gertatu

direla.

Egindako greben eremuari begiratuz gero, enpresaren eremuan eragin handiagoa izan dute. Izan ere, enpresako grebak 163 izan dira eta sektorekoak 9, azken hauek lan egin gabeko egunen %11,6 soilik eragin dituztelarik. Enpresako eremuko artean %72a sektore pribatukoak dira eta eremu horretako lan egin gabeko egunen %76a eragin zituzten. Oraingo honetan, sektore pribatuan egindako grebek, parte hartu dutenen kopurua txikiagoa izan den arren (sektore pribatuko grebetan 11.984 pertsonak parte hartu dute, eta publikokoetan, berriz, 12.188 pertsonak), eragin nabarmenki handiagoa izan dute, parte hartzaile bakoitzak lan egin gabeko egunetan zenbaturik. Sektoreko bederatzi grebei dagokionez, haietako lau telemarketing delakoaren eremuan gertatu dira, EAerako hitzaumen kolektibo propioa ezarri nahian, greba bi etxek etxeko laguntzaren sektorean egin dira, negoziazio kolektiboko eztabaidengatik, beste bi arrazoi desberdinengatik Bilboko portuko zama lanetan egin dira eta bederatzigarrena Bizkaiko irakaskuntza hitzartuan egin da soldata hobekuntzengatik.

Lurraldean araberako azterketak erakusten duenez, lan gatazken bilakaera nahikoa homogenea izan da. Hala, greba kopuruak hiru lurraldeetan gora egin du: Araban %26,7, Bizkaian %18,8 eta Gipuzkoan %8,3, egin ere. Parte hartzaileei dagokionez, Gipuzkoan %15ean behera egin dute eta Bizkaian %11,5ean; Araban, berriz, %12,8az gora egin dute. Beste alde batetik, grebengatik lan egin gabeko egunak %46,7az jaitsi dira Gipuzkoan eta %43,9 Bizkaian, Araban %1,9az igo direlarik.

Enplegua erregulatzeko espedienteak

EEuskal Administrazioak baimendutako enplegua erregulatzeko espedienteak

	Espedienteak ¹	Ukitutako langilek ⁽¹⁾			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Amaiera
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007	282	4.815	17	3.856	942
2008(*)	155	2.615	26	1.663	926


(1): Euskal Administrazioak baimendutako espedienteak. (*) Iraila arte metaturiko datuak. **Iturria:** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Eusko Jaurlaritz

2008ko lehen bederatzi hiletan, 2.615 langile ukitzen zituzten enplegua erregulatzeko 155 espediente erregistratu dira. Kopuru hauek aurreko urteko aldi beraren aldean jarririk, hurrenez hurren %19 eta %28,2ko jaitsierak gertatu direla ikus daiteke. Hala, eteteo espedienteek ukitutako langileen kopuruak behera egin du (-%33,1%) eta, aldiz, gora egin dute bai murrizketako espedienteek ukitutako langileek (%188,9), baita kontratu amaierako espedienteetakoek ere (%26,3), talde hauek 1.663, 26 eta 926 langilek osatzen zituztela, hurrenez hurren. Datu hauen aurrean, dena den, ohar bat egin behar da, 2007an aldi berean arantzaren sektorean,

antxo hartzeko debekuagatik. 130 espediente egin baitziren. 2008an gertatu ez den egoera hau kontuan hartuko ez bagenu, ekitaldiko hil hauetako hazkundera %80koa izango litzateke espedienteetan, eta %51koa ukitutako pertsonetan. Azpimarratu behar da baimendutako espedienteen %92a langileen ordezkartzaren adostasunaz burutu dela. Espedienteak duten kausaren arabera aztertzen baditugu, kopururik handiena finantzazkoak eta eskarizkoak ez diren kausengatik sortu da (622 langile ukitzen dituzten 61 espediente), aurreko ekitaldiaren aldean jaitasi egin direlarik (%63,7ko jaitsiera espediente kopuruari dagokionez eta %71,1ekoa ukitutako pertsonetan). Alderantziz, bai finantzazko kausengatik sortutakoak (57 espediente eta ukitutako 882 langile), eta bai eskariagatik espedienteak ere (37 espediente eta ukitutako 1.111 langile) igo egin dira, aurreko ekitaldiaren aldean (%67,6 eta %164,3 kopuruan eta %70,6 eta %99,8 ukitutako langileei dagokienez, hurrenez hurren). Espediente hauek ukitutako pertsonen %70,5a (1.844 pertsona) industriaren sektorekoak dira eta haien ondorioz, gehienetan aldi baterako enplegua etetea izan da (1.090 pertsona); hala ere, 736 pertsonari kontratua deuseztatu zitzaizen. Espedienteen %37a (ukitutako enpleguaren %19,5a, 509 pertsona) zerbitzuetan daude eta ondorioak hemen ere aldi baterako eteteak izan dira batez ere (361 pertsona) eta kontratua deuseztatu zaien 140 pertsona. Eraikuntzan espedienteen %8a gertatu da (ukitutako enpleguaren %9,7a); zehazkiago, ukitutako 253 pertsona izan dira, haietatik 203 aldi baterako enplegua etetea jasan dute eta gainerakoei lan kontratua deuseztatu zaie.

Lan istripuak, erregistratutako datuen arabera¹

Ez gai egoera eragin duten istripuen aldakuntza (ehunekotan) aurreko urtearen aldean



(*) Iraila arte metaturiko datuak. **Iturria:** Osalan.

Lehen hiru hiruhilekoetan, EAEn ezgai egoera eragin duten istripua jasan duten langileen kopurua (37.630, lanaldikoak, in itinere eta lanbide gaixotasunak ere barne direla) urteen arteko %0,2an jaitasi dira. Jaitsiera hori, lanaldiko istripua izan dutenak (33.055) gutxiago izan direlako gertatu da, %1,5 gutxiago izan baitira, in itinere ukitutakoak ere (3.376) %4,4 gutxiago izan direlarik. Lan gaixotasunek ukitutakoek, berriz, (1.199), %91,2az gora egin dute. Lanaldian ezgai egoera eragin duten istripuak izan dituzten pertsonen kasuan, hirugarren sektorean izan ezik, gainerako guztietan ikusten da istripu kopurua jaitasi egin dela ikusten da. Jaitsierarik handiena lehen sektorean gertatu da (663 pertsona eta %6,4ko jaitsiera). Jarraian eraikuntza dator (ukitutako 5.743 pertsona eta %6,3ko jaitsiera). Gero industriaren sektorea dator (istripua izan duten 13.596 pertsona eta %1,8ko jaitsiera). Zerbitzuen sektorean,

aldiz, 13.053 pertsonak izan dute istripua, eta %1,4ko igoera gertatu da. Erregistratutako istripuen larritasunari dagokionez, jaitasi egin dira istripu arinak (32.821, %1,3ko jaitsiera) baita larriak ere (199, hau da, %26ko jaitsiera). istripu hilgarrien kopurua (35) ez da aldatu aurreko ekitaldiaren aldean. Hildako pertsona hauek gizezkoak izan dira guztiak eta batez beste 45 ueste zeuzkaten; haietako sei lantokitik kanpora gertatutako lan istripuak izan ziren eta gainerako 29etatik 17 traumatikoak izan ziren (%48,6) eta 12 ez ziren traumatikoak izan (batez ere bihotzeko eta zirkulazioko arazoak). Hala, bederatzi hil hauetako istripuen bilakaera onuragarria izan da: lanaldian 34 istripu gertatu dira mila landun bakoitzeko (2007ko aldi berean 35 izan ziren).

¹ 2007ko apiril eta ekainean administrazio arazoak gertatu ziren istripuak erregistratzean eta gertatutako istripuekiko desbideratze nabarmena sortu zen, Osalane berretsitako informazioaren arabera. Horregatik, lehen erabili zen hileko seriea egokitu egin da, urte hartan erregistratutako istripuen kopuru osoa aldatu gabe.